

EUSKAL IPUIN HARRIGARRIAK

Donostia, 1992-III-25

Martin Etxeberria Zuloaga

0. SARRERA

Herri-Literaturari buruzko II. Jardunaldi hauen ardatza herri-narratiba da.

Jose Maria Satrustegi jaunak, aurreko ponentzian, herri-narratiba horren eremua zehaztu digu, alor zabal-aberats honen gune desberdinak zedarrituz.

Ipuinek horietako gune bat osatzen dute, eta ezin uka jardunaldi hauetan leku berezia eman zaienik. Are gehiago, ponentzia eta txostenen zenbatekoari begiratuz, ipuinen inguruko azalpenei lehentasuna eman zaionaren inpresiorik ezin sahiets, izan ere, zortzi ponentzietatik hiruk, zuzenki, ipuina edo ipuingintza dute ardatz eta zazpi txostenetatik seik.

Ez noa orain aukeraketa honen azterketan murgiltzera. Ez da hori ponentzia honen helburua ezta, ene ustez, ponentzia honen izenburuak hona erakarri zaituztenon interes nagusia. Eta, halere, ezin ezkutuan gorde urte luzeetan nire buruan gira-biraka ibili diren kezka eta galderak direla eta, honelako egitaraua ikusteak sortu duen itxaropena, honelako galdera baten bidez plazara dezakedana: hasiak al gara, azkenik, herri-literaturaren arlo honi behar hainbateko garrantzia ematen? Barka, baina, ikusiak ikusita, ez naiz erantzun zuzenez ziur oraindik.

Baina horretan, beste gauza askotan bezala, barruan, nire baitan esan nahi dut, egon daiteke errua, kanpoan, ikerlari eta Unibertsitate mailan zehazki, egon beharrean.

Eta hau badiot ez dut erretorika hutsez esaten, beharrezkoa dudalako, eta ponentzia honen testuingurua zehazteari komenigarri deritzodalako baizik.

Izan ere, zeren izenean naukazue hemen ponentzia honi hasiera ematen? Arrazoi bakarra dago, agian: 1973.urtean *Jakinek* argitaratutako nire *Euskaldunen ipuin harrigarriak*.

Nanterreko Unibertsitatean Maîtrise-tarako 1972.urtean aurkezturiko azter-lanaren argitalpena da liburu hori, V. Propp-en azterbidea gure euskal eremura hurbildu eta bertan testatzea helburutzat zuena.

Hogei urte geroago, non gaude? Ez naiz nor besteei buruz hitzegiteko. Niri dagokidanez bi aitorten, pertsonala lehenengoa, orokorragoa bigarrena, nahiz eta pertsonala izaten jarraitu:

1. Pertsonalki: lan hark ez du bigarren bat umatu, bai, ordea, ernemindu: Euskal Ipuin Harrigarrien "Corpus"a. Baina bizi beharrak eta beste zenbait lanek ez didate nahi adina beta utzi oraingoz.

2. Orokrago: Ipuinen eremua zabal eta aberatsa izateaz gain interesgarria ere badela deritzot, eta, halere, ez duela orain arte ikerlari eta Unibertsitate-gizonen interes osoa bereganatu uste dut. Hobe oker banengo!

Bi aitorten horien argitan ikusi beharko litzateke urte askoren ondoren birhurbilketa apal bat besterik ez den nire ponentzia hau. Nik horrela dakusat, bederen. Eta luzapen gehiago gabe, etor gaitezen harira.

1. EUSKAL IPUIN HARRIGARRIAK. EREMUA MUGATZEN

Hiru hitzez osaturiko izenburua jarri diogu ponentzia honi eta bakoitzak bere eragin nabarmena du eremu bat mugatu eta argitzerakoan. Eta, esan beharrik ez dago, helburu horrekin, hain zuzen, aukeratu dira hiru hitz horiek. Aukera, beraz, ez da kasualitatearen nahiz halabeharraren ondorio itsua.

Izenburu horretako hitz bakoitzak herri-narratibaren azpi-multzo bat mugatu eta definitzen du, bai orokorki eta baita partikularki, hau da gure herri-narratibari bagagozkio.

Beste hitzetan, batetik *ipue*z ari gara, bestetik ipuin mota berezi bat dugu aztergai: ipuin *harrigarriak*, eta, azkenik, *gure* ipuin harrigarriez gara mintzo. Azal ditzagun hiru puntu hauek:

1.1. Ipuin

Zabala eta aberatsa dela herri-narratibaren eremua aitortuz eman diogu hasiera gure ponentziari; eta horretaz jabetzeko, nahikoa da hantzen ikertzaile eta jasotzaile desberdinen lanetan aurki ditzakegun arlo-aipamen eta sailkapen zerrendak aztertzea. Leiendak, txistek, alegiak, mitoak, asmakizunak, esaerak, ipuinak, atsoitzak, kontakizunak, eta abar aurkituko ditugu sarri asko horrelakoetan, herri-narratibaren oparotasunaren agerpen bezala.

Aberastasun horrek, halere, nahi baino arazo gehiago sortzen dizki-gu sailkapen zehatz bat egiterakoan, eta aipatu berria dugun zerrenda horretako terminu batzuek multzo jakin eta bakar bat adierazten badute ere, badago besterik, hau da, nahasketa sortzen duenik ere, edo nahiago bada, gutako bakoitzarengan ohiartzun desberdinak sortzen duenik. Hauen artean, baten bat aipatzerakoan, hirukote bat aipatuko dut: Mito-Leiendaa-Ipuin. Hirukote ospetsua, benetan! eta eztabaida ugariren iturri!

Gure herri-narratiba jasotzen eta, argitaratzeko besterik ez bada ere, nolabait sailkatzen ahalegindu direnengana jotzen badugu, ez dago asko aztertu beharrik hiru kontzeptu horiek nahasian erabiltzen dituztela ikusteko. Hona hemen zenbait adibide:

– Jean François Cerquand-ek honela izendatzen du 1874. urtean argitaratzen hasten den bilduma: *Légendes et récits populaires du Pays Basque*.

– Wentworth Webster-ek 1877. urtean argitaratzen du bere *Basque Legends*, leienda eta ipuin sorta bat eskainiz.

– Julien Vinson-ek 1883. urtean argitaratzen duen *Folklore du Pays Basque* liburuaren lehen atalak “Contes et récits” darama izenburutzat eta bere barne sailak hauek dira:

- A - “Légendes et superstitions”.
- B - “Contes merveilleux”.
- C - “Récits de sottises et de naïvetés”.

– Resurrección M.^a de Azkue-ren *Euskalerraren Yakintza*-ren bigarren liburuak *Ipuin eta irakurgaiak* darama izenburutzat (bere itzulpe-nean: *Cuentos y Leyendas*), baina aurkibidean *ipuin luzeak* eta *ipuin laburrak* izenburupean aurkitzen ditugu sailkatuta material guztiak.

Garbi dago besterik gabe, beraz, ipuin, leienda eta mito terminoek ez dutela erabilpen zehatzik aipaturiko ikerlariengan. Beste adibide bat eman nahirik, hona hemen W. Webster-ek bere liburuaren hasieran, Tartaroren leiendei buruz ari delarik, tartekatzen duen zatitxo bat:

“Es ciertamente una cuestión interesante: ¿Existe alguna conexión entre el Tártaro vasco y el Ciclope de la Odisea y los clásicos? En primer lugar debemos señalar que la *Leyenda del Ciclope* no es exclusiva de los escritores griegos y latinos, ni siquiera de los pueblos arios. Una prueba de ello es el trabajo sobre *Leyendas del Tártaro* presentado por M. d’Abaddie de la “Société des Sciences de Bayona”, en el que el autor relata que en junio de 1943, en un punto de Africa Oriental situado en Latitud 9.2º Norte, Longitud 34.48º Este, escuchó *el cuento* de labios de un hombre que nunca había abandonado aquel país. Por

tanto, es solamente la modalidad específica de *la Leyenda*, y no la idea original, lo que los griegos “pueden” haber tomado de los vascos. Debemos sin embargo señalar que *el mito del Ciclope* es un mito occidental, no oriental, y que está más estrictamente localizado que casi todos los demás”. (Azpimarrak nireak dira) (W. Webster: *Leyendas Vascas*, 11. eta 12. orr., Miraguano Ediciones, Madrid, 1989).

Zikloperen leienda nahiz mitoa, Tartaroren leienda nahiz ipuina eta Zikloperen nahiz Tartaroren leienda aipatzen ditu Webster-ek, hiru terminu hauek beren artean trukagarri bezala erabiliz.

Arazo hau ez da, halere, gure ikerlari eta biltzaileena bakarrik. Stith Thompson-ek 1946. urtean argitaratu zuen bere *The Folktale* liburu ospetsua, eta bere lehen atalburuan honela dio:

“En el presente trabajo nuestro interés está limitado a un campo relativamente reducido: el cuento tradicional en prosa, el cual ha pasado de una generación a otra en forma escrita u oral. Tales cuentos son, desde luego, uno de los muchos tipos de material narrativo.” (Stith Thompson: *El cuento folklórico*, 26. orr., Ediciones de la Biblioteca de la Universidad Central de Venezuela, Venezuela, 1972).

Folktale-a mugatzeko Stith Thompson-ek bi erizpide erabiltzen ditu, beraz: alde batetik kontu horrek prosazko egitura edukitzea, eta bestetik tradizio baten jabe izatea, hau da, sortu berria ez izatea.

Bi erizpide hauek mugaturiko zelaia luze-zabala da eta Folktale edo kontu zahar horren gerizpean kontakizun mota asko babes daiteke. Stith Thompson berak hamaika kontu-mota desberdin bereizten du, hala nola:

1. “Märchen” edo “household tale”, nahiz “conte populaire” edo “cuentos de hadas”.
2. “Novella”k.
3. Heroen kontuak.
4. “Sage” nahiz kontuak.
5. Kontu argitzaileak.
6. Mitoa.
7. Animalien kontuak.
8. Alegiak.
9. Kontu barregarriak.
10. Santuen leiendak.
11. Sagak.

Zeren arabera burutzen du sailkapen hau? Egia esan, Stith Thompson-i sailkapen zehatzaren arazoak ez diola buruhauste handiegirik ematen iruditzen zait eta berak aipatzen dituen multzo horiek bere sailkatze-

-lanaren ondorioak izan beharrean, herriak berak edo ikerlari nahiz jasotzaileek erabilitako sailkapenen oihartzun deskriptibo bat besterik ez direla uste dut. Thompson-ek literatura espezialduan erabiltzen den terminologia jaso, nolabait deskribatu eta erabili egiten du. Baina ohar honekin ematen dio hasiera kapitulu honi:

“Folktalea nahiz gizonaren eginahal artistikoaren beste sorkari guztiak direla eta ikerlariak analisi xehegia egitearen arriskua du. Herri baten ahozko narratibagintza guztia ikertzeaz ardua daiteke, eta eduki, era nahiz sorburuaren araberako kategoritan argiro zatikatzen ihardun dezake, baina hain zehazki eginiko ipuinen azterketa horrek zalantzarik gabe asko erakusten badio ere, bere baieztapenak kontaktzen dituzten gizon-emakumeei ezezagunak zaizkiela eta bost axola diela jakin behar du. Oso analisisia finak egin dira aurreko denboretan eta ahalegin handiak egin dira alperrik folktaleen mota desberdinen muga zehatzak ezarri nahian”. (*op. cit.*, 30. orr.).

Oharrak badu, noski, bere garrantzia, ona baita nahita-nahiez sailkatu behararen arriskua gogoraraztea eta tresneriaren kamustasuna begien aurrean jartzea. Halaber, herri-narratibaz ari bagara, herriari adi egon beharra azpimarratzea. Baina badu, halere, ohar horrek bere arriskua ere. Bide horretatik errazegi iritsi baikaitezke zientziaren ukaziora nahiz herrikoitasun antzura ere.

Dena dela, gauza bat dago garbi: herri-narratiba dela eta, badagoela arazo pranko sailkapen bat burutzeko orduan. Eta, halere, zailtasunak zailtasun, gure iharduerak jarraipenik izango badu, beharrezkoa deritzot sailkapen bat, behin-behinekoa bada ere, emateari.

Herri-narratibaz ari garenez, bi erizpidek mugatzen dutela eremu hori esan dezakegu:

1. *herri-narratiba*, narrazioz, kontuz osatuta dago.
2. *herri-narratiba*, herri batek, berak sortuz nahiz besteenak bereganatuz, bere buruari kontatu/kontaktzen dizkion narrazio horiek osatzen dute. Eta oraintsu arte kontatu, ahoz kontatu dira.

Herri batek bere buruari kontaktzen dizkion kontu guztiak ez dira, ordea, berdinak, ez egituraz, ez edukiz, ez helburuz, ezta eraz ere. Lehen aipaturiko hirukotera itzuliz: mito-leiendai-*ipuin*, hirurak narrazioak dira, baina gizakiak ez du jarrera berdina hartzen hiruren aurrean:

- mitoa sinesmenari, erlijioari, loturik agertzen zaigu;
- leiendan kontaktzen denak gertatutakoaren ezaugarria du;
- ipuinak, aldiz, asmakizunen eremura garamatza; ipuinetan kontaktzen dena ez da ez sinesgai ezta gertakari ere.

Mittoa sinismenaren euskarri eta erritoaren lagun da, leienda historia bilakatzen da, ipuinak, berriz, dibertsio eta atseginaren mundura garamatza batez ere.

Mittoa eta leienda egiaren eremuan mugituko lirateke, beraz, eta ipuina, aldiz, irudimen eta fantasiaren eremuan.

Erizpide hauek tajuz erabiltzeko, ordea, bere buruari kontuak kontatzen dizkion herri horren barruan egon beharko litzateke kontalarien eta kontu-entzuleen jarreraz zuzen jabetzeko eta jasotzeko. Bestalde, aspaldian dago esana sinismena galtzarekin batera mitoak ipuin bilakatzen joan zirela. Mugatu berriak ditugun eremuak, beraz, aski aldakorak direnik ezin dezakegu ahaztu. Gure helbururako nahikoa adierazgarri dela deritzot, halere.

1.2. Ipuin harrigarriak

Asmakizunezko herri-kontu edo herri-narrazioak bezala mugatu berriak ditugu ipuinak, sinismenari nahiz historiari kontrajarritz.

Horrela, zertxobait zehaztu eta estutu dugu ipuinaren eremua, baina nahikoa ireki eta zabala agertzen zaigu, halere, oraindik.

Stith Thompson-ek eginiko sailkapena gogoratzen badugu, ikusten dugu berak eginiko hamaika azpisailkatatutako sei-zazpi bat definizio honen altzoan jaso ditzakegula, hala nola: “märchen” edo “household tale”, novellak, heroen kontuak, animalien kontuak, alegiak, santuen leiendak, eta kontu barregarriak.

Folklore-zale eta Folklore-ikertzaileen artean badago, halere, ospe eta eraginkortasun berezia izan eta duen sailkapen bat, edo bi, nahiago bada: Anti Aarne nahiz Aarne-Thompson-ena.

Anti Aarne, ikertzaile finlandiarra, 1910. urtean argitaratu zuen bere “Verzeichnis der Märchentypen”. Liburu honetan, Anti Aarne jauna herri-kontakizunen eredu edo tipo desberdinen katalogoa mugatzen saiatu zen. Berarentzat kontakizun-eredu nahiz tipo bat bere kabuz bizi den kontu edo ipuin solte batek osatzen zuen. Sailkatze lan honek, bestalde, bazuen helburu jakin bat, hau da: lurralde desberdinetako ipuinen aldegarritasuna ahalbideratzea. Beste era batera esanda, helburu praktikoa batez buruturiko sailkatze sistema unibertsala erdietsi nahi zuen Anti Aarne-k, eta honen adierazgarri hona bere hitzak:

“¡Cuánto se facilitaría la labor de los recolectores de cuentos si todas las colecciones de cuentos folklóricos impresas hasta ahora se ordenasen de acuerdo al mismo sistema! El estudioso podría descubrir

en un momento, el material que necesita de cualquier colección, mientras que al presente, se ve obligado a revisar toda la obra si desea familiarizarse con los contenidos. Ya que cada editor ha arreglado su colección según su propio juicio, el cual sólo en pocos casos ha estado guiado por un profundo conocimiento de la materia". (Anti Aarne: *Verzeichnis der Märchentypen*, 8 s. orr., Stith Thompson-ek bere *El cuento folklórico-n 529*. orrialdean aipatzen duenez).

Anti Aarner-en lana garrantzitsua izan bazen ere, lehenengoa izanik, ez zen osoa izan eta laster atzeman zen osatu beharrezkoa zela. Stith Thompson ikertzaile ipar-amerikarrak ekin zion lan honi eta 1928. urtean argitaratu zuen *The Types of the Folk-Tale: Anti Aarne's Verzeichnis der Märchentypen translated and enlarged*; arruntki Aarne-Thompson-en *The Types of the Folktale* bezala ezagutzen dena; eta, neurri batean bederen, A. Aarne-k eman zion helburua lortu duena, hau da: gaurregun ipuin bat aipatzerakoan beharrezkoa da Aarne-Thompson-en katalogoarekiko lotura adieraztea.

Anti Aarner-en ustetan, eta geroztik sailkapen honi jarraituko diote gehienek, ipuin multzoa hiru azpimultzo nagusitan bereiz dezakegu: animalien ipuinak, ipuin folkloriko arruntak eta ipuin barregarriak.

Aipatu azpimultzo bakoitza, bestalde, azpisail desberdinetan birmultzoka daiteke; honela, animalien ipuinen multzoa ipuin horietan agertzen diren animalien arabera sailka daiteke. Ipuin barregarriek, berriz, hiru azpisail nagusi onartzen dituzte: leloen ipuinak, senar-emazteen ipuinak eta gezurren ipuinak.

Ipuin folkloriko arrunten multzoa, A. Aarne-ren esanetan, multzo handiena da, eta lau azpisail nagusiz osatuta dagoela deritzo; hona hemen lau azpisail hauek:

- magiazko ipuin edo ipuin harrigarriak
- erlijiozko ipuinak
- ipuin erromantikoak
- ogro ergelaren ipuinak

Hemen aurkitzen ditugu, azkenean, gure ipuin harrigarriak. Egia da Aarne-ek ez digula erizpide gehiegirik ematen ipuin harrigarrien muina zertan datzan jakiteko, honela baitio:

“En los cuentos de magia siempre se encuentra algún factor sobrenatural, e igualmente y por lo general, en los religiosos; mientras que los relatos románticos se mueven dentro de los límites de la posibilidad. Para los cuentos del ogro estúpido ha sido difícil encontrar un lugar satisfactorio en la clasificación. Son en verdad cuentos maravillosos y

como tales deberían colocarse junto con otros cuentos de maravillas, pero por otra parte, ya que en su carácter y naturaleza se parecen a los cuentos humorísticos, se han colocado como el último grupo de los cuentos folklóricos comunes, cercanos a las anécdotas humorísticas". (op. cit. 12-14 orr./ Sthith Thompson-ek bere *El cuento folklórico*-n, 531. orrialdean aipatzen duenez).

Luze eta sakon eztabaida daiteke Aarne-k proposatu eta Aarne-Thompson bikotearen eskutik hainbat hedatu den sailkapen honen zuzentasun eta egokieraz. Eztabaida daiteke eta eztabaidatu da. Eta arrazoi osoz. Ez noa ni liskar honetan sartzera, ordea. Zergatik?

1. Bere sailkapenaren oinarri zientifikoak hamaika aldiz, arrazoi osoz, kolokan jarriak izan arren, sailkapen horrek A. Aarne-k eman zion helburu nagusia bete eta betetzen jarraitzen duelako, hau da: behar-beharrezko erreferente bihurtu delako, aipamen, alderaketa eta abar egiterakoan.

Guk ere onartu beharrekoa, beraz.

2. Ipuin harrigarriari gagozkiolarik, Aarne-Thompson-ek mugatzen zuten azpi-saila eta Propp nahiz beste ikertzaileek, beste bidetatik abiatuz, hersten dutena, neurri batean bederen, bat datozelako.

V. Propp berak, *Ipuinen Morfologia*-n, 1929an, honela dio:

"Como ya hemos observado en el prefacio, esta obra está consagrada a los cuentos *maravillosos*. La existencia de los cuentos maravillosos en tanto que categoría particular será admitida como una hipótesis de trabajo indispensable. Por cuentos maravillosos, entendemos los que están clasificados en el índice de Aarne y Thompson entre los números 300 y 479. Esta definición preliminar es artificial, pero más adelante se presentará la ocasión de dar otra que sea más precisa; la extraeremos de las conclusiones mismas a las que hayamos llegado." (V. Propp: *Morfología del cuento*, 31. orr., Editorial Fundamentos, 5.^a edición, Madrid, 1981).

Eta aurrerago ematen duen definizioa hau da:

"La constancia de la estructura de los cuentos maravillosos permite dar una definición hipotética de ellos, que se puede formular de la forma siguiente: el cuento maravilloso es un relato construido según la sucesión regular de las funciones citadas en sus diferentes formas, con ausencia de algunas de ellas en tal relato y repeticiones de otras en tal otro".

Definizio hau eman ondoren, honela jarraitzen du:

“Esta definición hace perder su sentido a la palabra *maravilloso* y es fácil en efecto imaginar un cuento maravilloso de hadas o fantástico construido de una forma completamente diferente... De modo inverso algunos cuentos no maravillosos, bastante raros, pueden construirse según el esquema citado. Un cierto número de leyendas, algunos cuentos de animales y narraciones aisladas poseen la misma estructura. Por tanto, la palabra *maravilloso* debe ser reemplazada por otro término. Es muy difícil hallar uno y por eso dejamos provisionalmente a estos cuentos su antigua denominación”. (V. Propp, *op. cit.*, 115-116. orr.).

Propp-en Morfologia mendebaldean ezagutzera eman zenetik hamai-ka eztabaida eta ikerketa egin da ipuin harrigarriak definitzeko asmoz, eta, halere, erabateko kontsentsua egiteke dagoela esan beharko dugu. Azken batean, jarrera pragmatiko bat nagusitu dela esan dezakegu; horren adierazgarri Jacques Berlioz, Claude Brémont eta Catherine Velay-Vallantin ikerlariak *Formes médiévales du conte merveilleux* liburuaren aurkezpean, 1989. urtean, diotena ekar dezakegu:

“Nous n’ignorons pas qu’il est difficile de dire ce qu’on doit entendre par “conte merveilleux”. Pour couper court à une discussion sans issue, nous avons résolu de prendre pour base de notre enquête la liste naguère dressée par les folkloristes finnois, et donc de rechercher les formes médiévales des contes--types analysés dans le catalogue de Aarne et Thompson, entre les numéros 300 et 745, sous le titre *Marvellous tales*; c’est déjà ainsi que Vladimir Propp avait procédé dans sa “Morfologie du conte”, et cette solution, si elle est loin d’échapper à l’arbitraire, reste la moins mauvaise qu’on puisse imaginer” (J. Berlioz, C. Brémont, C. Velay-Vallantin: *Formes médiévales du Conte Merveilleux*, 9. orr., Stock/Moyen Age, Stock, Paris, 1989).

Aarne-Thompson eta Vladimir Propp. *The Types of the Folk-Tale* eta *Ipuinaren Morfologia*. Horra hor ipuin harrigarrien eremuaren sarbide nagusiak.

1.3. Euskal ipuin harrigarriak

Bi hitz besterik ez honetaz: euskal edo euskaldunen ipuin harrigarriak. Gure herrian jasotako ipuin harrigarriak euskal ipuintzat emango ditugu. Gureak ere badirelako, nahiz hemen sortuak ez izan. Eta geureak eginez gure kulturaren osagai bihurtu direlako. Ipuin bakoitzaren azterketa zehatzak erabaki beharko du ipuin horren jatorria eta hedapena, euskal berezitasunaren presentzia ala gabezia, eta abar. Baina, oro har, gure herrian jasotako edozein ipuin euskal ipuintzat emango dugu. Beste guztiak egiten duten bezala.

2. EUSKAL IPUIN HARRIGARRIAK. EREMUA ZEHAZTEN

Teorian bada ere, gure ihardueraren esparrua mugatu dugula uste dut, herri-narratibaren zein elementu edo osagaiz ari garen argituz. Eta, nahiz, agian, bati baino gehiagori alperrikako lana iruditu, honetan, beste lan-esparru askotan bezala, ezinbestekoa deritzot kontzeptuak argitzeari eta eremuak zedarritzeari, betiko nahasketan jarraitu nahi ez badugu bederen.

Guregana itzuliz, ordea, zein da euskal ipuin harrigarrien eremua? Zein ipuinek osatzen dute? Zein egitura dute? Nolako berezitasunen jabe dira?

Honelako eta beste hamaika galdera ere egin diezaiokegu geure buruari eta denak dira interesgarri eta garrantzitsu gure ipuin-multzo horren ezagutza sakona erdietsi nahi badugu. Galdera guztiei erantzun ezinik, ordea, mugatu berri dugun eremu hori piska bat zehazten ahaleginduko naiz, kontutan edukiz nire oraingo interesa nagusia nolabaiteko "Corpus" a osatzean datzala. Eta besterik gabe jo dezagun ipuin bildumetara.

2.1. Euskal ipuinen bildumak

Mende bat igaro da euskal herri-narratibaren lehen bilduma Jean François Cerquand-ek argitaratu zuenetik. "Légends et récits populaires du Pays Basque" izenburupean, 1874-1885 urte tartean 117 kontakizun frantsesez eta horietatik 109 euskaraz argitara eman zituen Pabeko *Société des Sciences, Lettres et Arts*-en aldizkarian. Geroztik beste ikerlari batzu beren bildumak argitaratzen saiatu ziren. Denak ezin hemen zerrendatu eta gehien aipatzen direnak gogora ekarriko ditut:

– W. Webster-en *Basque Legends*, 1877. urtean Londonen argitaratua; bertan, ingelesez, 48 kontakizun aurkitzen ditugu.

– Julien Vinson-en *Folklore du Pays Basque*, 1883. urtean Parisen argitaratua; bertan, frantsesez, eta "Contes et récits" izeneko lehen atalean, 36 kontakizun aurkitzen ditugu. Horietatik, halere, 17 Cerquand-en bildumatik hartuak daude, bat Araquistainen liburutik eta beste lau Webster-engan aurkitzen ditugu. Vinson-ek, beraz, 14 kontakizun berri eskaintzen dizkigu, berak dioenez, Webster eta bien artean, Donibane Lohizunen batez ere, 1874-76 urteetan jasoak.

– Jean Barbier-en *Légendes du Pays Basque d'après la tradition*, 1931. urtean, kontakizun guztien euskarazko testua emanaz, frantsesez argitaratua. Bertan 50 kontakizun aurkitzen ditugu.

– Mayi Ariztia-ren *Amattoren uzta*, 1934. urtean, Baionan argitaratua. Bertan 16 kontakizun euskaraz, bere frantsesezko itzulpenaz, ematen dizkigu.

– Mayi Ariztia-ren “Leyendes Labourdinas”, *Anuario de Eusko Folkloren 1934. urtean argitaratua. Bertan beste 16 bat kontakizun aurkitzen ditugu euskaraz eta gaztelerazko itzulpenaz.*

– R.M. Azkue-ren *Euskalerrriaren Yakintza*, 1942. urtean Madrilan argitaratua. Bigarren tomoan Azkuek 132 ipuin luze eta 109 ipuin labur eskaintzen dizkigu, euskaraz eta gaztelerazko itzulpenaz.

– J.M. Barandiaran-en *Obras Completas*. Bere bigarren tomoan, Bilbon 1973. urtean argitaratua, aurki ditzakegu Barandiaranek argitaraturiko kontakizun gehienak. Ezinezkoa zaigu bertan jasotako kontakizun guztien kopuru zehatza ematea, Cuentos y Leyendas izenez zehazki aipaturikoez gain, beste asko eta asko baitago liburuki lodikote honetan eta besteetan barreiaturik. Dena dela, eta behin-behingoza bada ere, hemen J.M. Barandiaranek Auñamendi liburu sortan *El mundo en la mente popular vasca* izenez argitaraturikoetara mugatuko gara. Lau liburukiz osaturiko argitalpen honetan *Cuentos y Leyendas* izenburupean agertzen diren kontakizunak bakarrik hartuko ditugu, beraz, gogoan hemendik aurrera.

2.2. Euskal ipuin harrigarrien kopurua

Ehun urte buruan (Cerquand 1974-Barandiaran 1973) euskal herri-narratiba jasotzen eta ikertzen ihardun duten ikerlari-biltzaileen emaitza ez da, azkenean, txantxetakoa. Aipatu berri ditugun pertsonaietara mugatzen bagara, zazpien artean 500 bat kontakizun, gutxienez, eskaini eta eskura jarri dizkigute. Agian, han-hemenka bildu diren guztiak kontuan hartuz bikoiztu daiteke kopuru hau, Laffitek uste zuen bezala, “hamabi ehun” batera iritsiz.

Gure helbururako, halere, garbi dago 500 kontakizun horietatik ez direla denak ipuin harrigarriak. Bestalde, ageriko gauza da baita ere, zazpi biltzaile horiek eskainitako uztan ipuin berdinen bertsio desberdinak aurkitzen ditugula. Dena dela, kontutan hartuz, batetik, ipuin harrigarriei buruz Aarne-Thompson-ek emaniko ipuin-zerrendak eta Propp-ek agerian jarritako egiturak mugatutako eremua eta, bestetik, nekez aurki daitekeela ipuin-tipo baten erabat berdinak izango diren bi bertsio, aipatu herri-narratibaren bilduma horietan berrehundik gora direla ipuin-harrigarrien sailean sar ditzakegun kontakizunak deritzot. Kopuru mardula, beraz, edozein azterketari ekiteko, azterketa berak erabakiko duela-rik orain hurbilketa moduan ematen den kopuruaren zuzentasuna.

2.3. Euskal ipuin harrigarrien jatorria

2.3.1. Geografia

Gure ipuin harrigarrien jatorria aipatzerakoan ez noa hainbat ikerlan eta teoria sortarazi duen ipuinen jatorriaren arazoari buruz hitz egitera. Askoz apalagoa da nere helburua. Oraingoz, euskal edo euskaldunen ipuintzat gure artean jasotako ipuin oro hartuko nuela aitortu dut lehena-go eta ez dut aitorten hori kolokan jartzeko asmorik.

Lehen aipaturiko bildumetan agertzen diren kontakizunak galbahetik pasa ondoren, berrehundik gora ipuin gelditu zaizkigula esan dut ares-tian, kontuan edukiz beti, J.M. Barandiaranen bilduma ez garela bere osotasunean hartzen ari.

Horiek horrela, mugaz handiko testuak Hego Euskalerrikoak baino ugariagoak direla ezin da uka. Iparraldekoen nagusitasuna nabarmena da, hirutatik bi, gutxienez, Iparraldean jasoak baitaude. Hona hemen zenbait argibide:

1. Egia da zazpi bildumetatik bost Iparraldean eta bi Hegoaldean eginak daudela, baina bertan jasotako kontakizun-kopuruari begiratu gero, Azkue eta Barandiaranen bildumak, oro har, aberatsagoak dira, lehen aipatzen genituen bostehundik gorako ipuinen erdia baino gehiago bi bilduma horietan agertzen delarik.

2. Ipuin harrigarrien kopurua, halere, asko murrizten da bi bilduma horietan. Azkueren 241 ipuin luze eta laburretatik 30 besterik ezin ditzakegu harrigarrizat har, eta J.M. Barandiaranen lau liburuki horietan 45 bat jo ditzakegu harrigarrizat. Jean François Cerquand-ek argitaraturiko 117 kondakizunetatik, berriz, 45 bat ipuin harrigarriak direla deritzot, ia erdia, eta Webster, Ariztia nahiz Barbier-en gehienak ere bai.

3. Azkue eta Barandiaranen bildumak ez dira Hego Euskal Herrira mugatzen, besteenak bai, berriz, Iparraldera.

Horiek horrela, eta datu konketuagoak eman nahirik, Lapurdi Webster, Vinson, Ariztia eta Barbier-en bildumetan isladaturik agertzen zaigula esan dezakegu; Baxe Nafarroa eta Zuberoa Cerquand-en lanean azaltzen zaizkigun bezala. Hegoaldean, berriz, Azkuek argitaraturiko ipuin harrigarrien erdiak Bizkaian jasoak daude eta baita Barandiaranek jasotako hamar bat ere. Azkueren eskutik datozkigu ere Nafarroan eta Araban (Aramaion) beraien iturburua duten beste hamahiru ipuin. Gipuzkoan jasotakoak, berriz, hogeitazazpiren bat, Barandiaranen bilduman aurkituko ditugu nagusiki, eta bizpahiru bat Azkueren bilduman.

Kopuruak kopuru, eta nahiz hauek, nere ustez, zazpi bilduma horien azterketaren ondorio zuzena izan, ezin dezakegu ahantz matematikan,

estatistikan eta gisa berdineko ihardueretan oinarrituriko azalpenek ondorio okerretara eramán gaitzaketela. Era honetako bat izango litzateke, adibidez, Iparraldean ipuin harrigarriek hedapen handiagoa izan dutela esatea. Ez dut uste azalpen horietatik horrelakorik ondoriozta daitekeenik, eta Corpus osoaren azterketatik bakarrik ateratzerik izango dugula ondorio zehatzik deritzot. Izan ere, Euskal Herri osoan metodikoki eginiko inkesta baten ondorioa izan beharrean, bilduma hauek, norbanakoaren ekimenaren ondorio estimagarriak dira eta ez dute beraien artean plangintza orokor baten lotura. Horregatik, ugaritasun erlatibo horren aipamena, oraingoz, bere horretan uztea nahikoa dela pentsatzen dut.

Badago, helere, aipatu berri dudán puntu bat eta gure arreta merezi dezakeena. "Inkesta" aipatu dut eta, hori dela eta, zazpi bilduma horietatik hiruk bederen inkesta moduko bati zor diotela bere sorrera ezin dugu ahaztu. Denok dugu J.M. Barandiaranen jokaeraren berri; inkesta metodoaren bultzatzaile sutsua izan zela eta inkesta horiek burutuko zituzten lankidez inguratu zela ezaguna zaigu. Azkuek ere bere inkesta aurrera atera zuen nahiz eta bere kasuan lankideak berri-emaile izatera mugatu. Baina Cerquand bera ere inkestaren bultzatzaile izan zenik ezin uka.

Hona bere lehen emanaldiaren hitzaurrean esaten duena:

"... Europaren Mendebaleko gure anaia gehiena den arraza horrek ez al du bere aintzineko garaitik deus atxiki? Ez du deus asmatu, deus idatzi? Besteen artean hura izan zitekeen istorio eta legenda zaharren xarma gutietsiko zuen bakarra, tradiziozko katea etentzen utziko zuena?"

Hauexek izan dira nere buruari pausatu dizkiotan galderak, Euskal Herrian egonaldi labur bat pasa ondoren. Eta hola-hola pausatu dizkiet Atarratze, Maule, Donapaleu eta Donibaneko Kantonamenduetako errientei, eskolari buruzko bilkura baten kari.

...

Testoari dagokionez hauxe eskatu nien nere laguntzaileei: istorioak hitzez hitz transkriba zitaten, Kateximako erantzunak edo matematikako definizio bat ematerakoan jartzen duten fidelitasun berberaz; bai eta ere bitxien iruditzen zitzaizkien ideia, hitz edo gertakizunak, eta horiek hain zuzen, kontu handiz transkriba zitaten. Zerbait kentzea edo gaineratzea debekatu nien, nahiz haien ustez testoa ez aski eder edo argi izan...

Itzulpenari dagokionez zera eskatu nien: gramatikala baino literalagoa izan behar zuela, hau da, ederra baino fidelagoa." (Anuntxi Arana-ren Itzulpena in *Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak* I, J.F. Cerquand, 11-12. orr., Txertoa Argitaldaria, Donostia, 1985).

Cerquand jaunak, Akademiako Ikuskatzaileak, herrietako errienteak edo maisuak bihurtzen ditu lankide, inkestatzaile "sorgin ipuiak eta kon-

tatzen diren beste guztiak” jaso eta transkriba ditzaten. Helburua garbi dago eta baita, Cerquand-en buruan bederen, metodoa.

Baina buka dezadan puntu hau, hurrengora heltzeko.

2.3.2. Bideratzaileak

Behin eta berriro aipatzen ari garen zazpi bilduma hauek badute bideratzaile zuzen eta ezaguna: Cerquand, Webster, Vinson, Ariztia, Barbier, Azkue eta Barandiaran jaun andreak, eta gehienei buruz ez noa ezer esatera, aski ezagunak bait zaizkigu beraien nortasun eta jokamoldeak. Badira, halere, bi kasu aipamen berezia merezi dutenak: Cerquand eta Webster jaunak.

a) Cerquand jaunari buruz, koordinatzaile baten modura jokatzeko duela esan dezakegu eta bera bideratzaile nagusia bada ere, hurbileko bideratzaile batzuek baliatzen dela ezin dezakegu ahantz, lehen ikusi dugun bezala Baxe Nafarroa eta Zuberoko errientak jartzen baititu bilketa lanetan. Nolakoak dira errienta hauek? Cerquand beraren deskripzioa interes handikoa dela uste dut eta kontutan hartu beharrekoa beraien bilduriko testuen azterketa egiterakoan. Honela dio, lehen aipaturiko hitzaurrean, euskal errientei buruz:

“Hautzaroa beren herrietako giroaren barnean iragan dute. Euskara da haien ama hizkuntza, baina ez dute sekula haren gramatika ikasi, eta ondorioz, ez dute hari buruzko prejuiziorik. Jakintsu askok bezala, euskarak ortografiarik ez duela pentsatzen dute, eta inongo findurarik gabe erabiltzen dute, beren auzoek bezalaxe. Bestalde, ikasketak egiteko herritik kanpoan pasatu duten denbora apurrak ez die ohiduraz alda arazi. Baserritarren jaunzteko eta jateko manerei eutsi diete, eta ez dira beren herrikideetatik bereizten, frantses hizkuntza eta historia dakizkitela zihurtatzen duen diploma gora-behera. Eta, batez ere, eskatzen zaien laguntza emateko prest dira, laguntza hori eskatzen zaien heinean”. (Anuntxi Aranaren itzulpena, op. ct. I, 12-13. orr.).

Bi hitzetan esateko, frantses “kulturaxo” jabe diren euskaldun alfabetatugabeak dira gure errientak. Beraien transkribapenak, beraz, naturaltasunaren preskotasuna edukiko dute askotan. Noraino izan dira, halere, lekuko zuzenak, transkribatzaile hutsak? Cerquand berak zalantzan jartzen du berak emaniko arauak zehazki jarraitu dituztenik. Euskarazko testotik itzulpena dagoen aldea ukazinezkoa izanik, eta itzulpen horiek transkribatzaileenak izanik, Cerquand berak aitortzen duenez, itzulpen horietan gauzatzen direla nagusiki gure Akademiako Ikuskatzaileak atzemaniko akatsak pentsa dezakegu. Baina zalantza ez da erabat aldentuta gelditzen.

b) Webster jaunari buruz, berriz, bi ohar egin behar dira:

1. Webster-ek ingelesara itzulita eman dizkigu berak jasotako ipuinak. Momentuz, beraz, ez ditugu eskuartean berak jasotako euskal testu gehienak, nahiz eta bere eskuizkribuetan aurkitzen diren.

2. Bere bilketa egiterakoan Webster euskaldun berri bat dela esan dezakegu, Jose Antonio Arana Martijak dioen bezala, 1873. urtean kontakizunak jasotzen hasten denean hiru urte besterik ez bait darama Euskal Herrian bizitzen.

Zertara datozen ohar hauek galde dezake batek baino gehiagok. Ohar bat besterik ez dute izan nahi. Ipuinei buruz egin daitezkeen ikerketa askotan ez dute, ezinbestez, eragin handiegirik izango eta neurri handi batean zehaztasun hauek kontuan hartu beharrik ez da egongo. Besteetan, aldiz, esanguratsoagoak direla uste dut, eta hizkuntzalaritza aldetik nahiz ahozkotasunaren aldetik aztertu nahi badira, nahi eta nahi ez gogoan eduki beharrekoak.

2.3.3. Kontatzaileak

Herria eta gure arteko azken kate-begiaren aurrean aurkitzen gara. Herri-ipuin harrigarrien esaleak eta transmititzaileak dira. Ikusi berri ditugu transmisio horretan egon daitezkeen okerdurak eta oztupoak. Aztertu beharrekoa litzateke ere beraiek kontakutakoek noraino isladatzen duten, zuzen eta okerdurarik gabe, herriaren altxorra dena. Ez gara, ordea, arazo horretan sartuko, eta beste puntuetan bezala berri deskriptibo batzu ematera mugatuko gara.

Ez dugu beti kontatzaileen berri, bai, ordea, gehienetan, nahiz eta, oro har, berri hau beraien izen-abizenetara eta jatorrira mugatu. Hortik aurrerako datuak urriak eta noiz behinkakoak direla esan dezakegu. Horrela, adina aipatuko zaigu batzutan; gehienetan, adin handikoak direla azpimarratu nahirik edo. Bestetan, gutxitan, norengandik zuen ikasia azalduko zaigu, ipuinaren antzinasuna adierazi nahiean edo. Aldiz, alfabetatugabea edo frantsesez ez dakiela kasuko kontatzailea esango zaigu, ipuin bat Frantziako nahiz beste lurraldeetako herri-narratiba jasotzen duten liburuen bidez ezaguna denean. Kontatzailearen bizimodua edo lana aipatuko zaigu, azkenik, beste kasu gutxitan.

Ipuin harrigarrien bideratzaileek emaniko datuen arabera, ezer gutxi jakin dezakegu, beraz, kontatzaile horietaz. Zentzu horretan, salbuespen gisa har dezakegu Mayi Ariztiak kontatzaile bati buruz esaten duena. Mayi Ariztiak *Amattoren uzta*-n hamasei (16) kontakizun argitaratu zituen, eta horietatik hamahiru (13) ipuin harrigarriak direla uste dut. Hamahiru

ipuin harrigarri horietatik, zortzi Josepe Amorenak kontatuak dira eta beste bat 18 urteko bere biloba batek, Marie Agerrek, hain zuzen. Zer dakigu berari buruz? Hona hemen Mayik esaten diguna:

“Ixtorio sail bat ere eta hoberenatarik, badut hartua, lauetan hogoi-ta bi urteko xahar maite baten ganik, Saran sortua Zugarramurdin zagona orduan.

Jakin nuen haren iloba gure neskatoaren ganik, Josepe hura ixtorio erraile gaitza, aipatua zela.

Ibil arazten zuten, etxez etxe, arto xuritzetan, auzo guziak elkarretara bildurik arto xuritzen ari zirelarik, harek ixtorioak erran, eta bertzek, entzun, ernerik, loaletu gabe, beren lana gisa hortan aiseago eta gehiago egiteko, omore hobean! Halaber eremanarazten zuten, etxetan Eguerriko bezpera arratsean, gauerdiko Meza bitartean, ixtorio erraten aritzeko.

Ekarrarazi nuen, gure etxerat, xoilki, bere ixtorio ederren kontatzeko.

Pasatu zituen bi egun; ez nuen atxikitzen ahal izan gehiago: sobera grina zuen etxean utziak zituen bere iloba ttiki umexurtzez.

Ikustekoa zen, zein goxoki eta eztiki kontatzen zituen bere ixtorioak, Ebanjelioa bezein egiak izan balire bezala, hitz bat uts egin gabe!

Bere ixtorioak kontatzen zituen, su pazterran jarririk, kapelua kendu eta belaun punttan emanik, begiak erne, urrunerat begira.

Zer oren goxoak iragan ditudan harekin!

Harritzeko da ze memoria izaten duten, batere irakurtzen eta eskribatzen ez dakiten horiek: liburuetan deusik ezin ikas, eta beti oroitzen beren aintzinekoen ganik aditu dituztenez!” (Mayi Ariztia: *Amattoren uzta*, 6-8. orr., Elkar, Donostia, 1982).

Aintzin solasean emaniko datu orokor hauezaz gain, ipuin bakoitzaren bukaeran emaniko berriei esker, beste hauek ere ikasten ditugu:

– Lehen Komunionea Sarako elizan egin zuela eta orduan ari zirela “aintzineko aldare behereko taulen berritzen”.

– “Axularren ixtorio” bat zuela 70 urte ikasia zuela Muttila zahararren ganik, Muttilainean Josepe muttil ttiki zagolarik.

– “Ama alaba batzuen ixtorioa” Alemanian ikasia zuela, euskaldun prisioner baten ganik; 1870eko gerla denboran, Alemanian, bederatzi hilabete eterdi prisioner egon zelarik.

– “Errege baten ixtorioa” 1931-ko apirilaren 13an, 87 urtetan, Zugarramurdin, Ixtilarteko bordan kontaktu ziola.

Oker ez banago, gainbegiratzen ari garen zazpi bilduma horietan ez da inon hainbeste berri ematen kontatzaile bati buruz. Eta bestalde, ze informazio aberatsa bideratzen digun Mayik!

Izan ere, kontatzaile bati buruz, kasuan Josepe Amorenari buruz, ematen dituen berriak, besteetan baino ugariagoak izateaz gain, kontaketa berari buruz eta kontatzearen inguruari buruz ematen dizkigunak ere biziki interesgarriak baitira. Bere aintzin solasean Mayik euskal kontatzaile baten irudia deskribatu digula esan dezakegu.

1934. urtean Mayik idatziriko hitz hauek halako giro bukoliko bat edo dakarkigute burura. Gauzak, antza, ez dira leku guztietan berdinak izan, halere. 60 urte lehenago, 1875. urtean, Cerquand-ek bere bildumaren lehen emaitza argitaratzen duenean, eta errientei-bere asmoen berri eman ziela kontatzen digunean, honela dio hitzaurrean:

“Ez da erreza izan nere asmoa ulertaraztea: errientak ez dira gau beiletan ibiltzen, neguan lanpetuegi izaten direlako. ... Gainera, oraingo gau beilak ez dira aintzinekoak bezala. Emigrazioa dela eta, familiak gero eta txikiagoak izaten dira, solasak eta eleketak ez dute lehenagoko eragipena. Guzti honengatik beldur nintzen ez nuela arrakasta handirik lortuko” (op. c. I, 11. orr., Anuntxi Aranaren itzulpena).

Eta lehen artikulua bukaeran, beste hau dio:

“Zaharrek, nere laguntzaile prestuek, laster ez liezaiokete inori kon- da beren oroitzapenetako altxorra. Oraingo belaunaldia eten bat egiten ari da herri tradizioan. Egungo euskaldunak, 20 urte bete aintzin herritik joanda, 20 urteren buruan itzultzen dira, aberats batzutan, gehienetan miserable, bainan beti aintzinekoek atxikien zituzten gauzetaz arduratu gabe, hau da: etxeko lasaiak, lan ixilaz, izenaren ohoreaz. Kanpoan izan direno arbasoen etxea arrotzen eskuetara joan da eta, bide batez, ohizko harremanak hautsiak gertatu dira. Familia gabekoa izanik ostatuan iragaten du denbora amerikanoak, itsasoz haraindiko istorioez bere herriki-deak suntsi arazten: oihanak, tropikoetako fruituak, Panpan dabiltzan abeltalde kodaezinak, kolonoen askatasun mugagabekoa, metatzen den urrea azaltzen dizkie kartsuki. Eta irudi liluragarri horren aldean etxeko istorio sinpleak ez dira agertzen ere ausartzen. Bil ditzagun, beraz, betirako ahantziak izan aurretik, orduan inork ez bait litzake berpitz” (op. II, 100. orr., Anuntxi Aranaren itzulpena).

Bi aipamen hauek ikusita, galdera bat baino gehiago sortzen zaidanik ezin uka. Noizkoa dugu herri tradizioari buruzko belaunaldien arteko etena? Norainokoa? Zein da gure kulturaren barne-mapa? Erantzunak erantzun, azken batean gogoan hartzekoak direla uste dut gai berdinen inguruan zirriborroraturiko egoera horiek.

Azkenik, datu orokor bat kontatzaileen sexuari buruz. Jean Barbieren bilduma alde batera utziz, ez baitigu gehienetan kontatzaileen berri-rik ematen, beste bildumetan honelako datua agertzen zaigu:

– 45 emakumezko kontatzaile aipatzen dira, beraiei zor dizkiegularik 78 ipuin.

– 43 gizonzko kontatzailek 69 ipuin transmititu dizkigute.

– 35 ipuin nori zor dizkiogun ez da aipatzen.

Ipuin harrigarrien kontatzailea, beraz, bildumen arabera, gizonzkoa zein emakumezkoa berdin-berdin izan daiteke, parekatuta agertzen bait-zaizkigu talde bakoitzaren kopuruak bai kontatzaileen aldetik eta baita kontatutako ipuinen aldetik.

2.4. Euskal ipuin harrigarrien transkribapena

Ez noa arazo teknikotan sartzera, lehen esan dudan zerbait pixka bat zabaltzera baizik.

Herritik, herriko gizon-emakumeengandik jasoak ditugu ipuin hauek, baina kontatzaile horiei entzuten egon direnen gogo-belarriak ez dira kasu guztietan berdintsuak izan. Hasteko, ez dugu inolako grabaziorik. Beste pertsona batzu dira entzun eta paperera eraman dutenak entzundakoa. Ikasketaz, hezkuntzaz, asmoz, metodoz, hizkuntzaren jabetasunez eta abar oso pertsona desberdinak. Nahikoa da, adibidez, euskararen ezagutza dela eta, lehenago errientei nahiz Webster-i buruz esandakoak gogora ekartzea.

Batzutan, bildumaren egileak kontakizunarekiko erabat fidela izateko asmoa agertzen digu. Cerquand batek, adibidez, edo Mayi Ariztiak hono-ko hau aitortzen duenean:

“Ixtorio horiek hartzeko, lehenik erranarazi diozkaket behin erraile-ri. Gero, erran dauzkidate berritz, emeki-emeki, puxkaka-puxkaka, hek erran ahala, nik markatzeko (1) gisan, hitz bakar bat ere kanbiatu gabe”.

Eta, halere, Cerquand bera konturatzen da ez duela beti erdietsi desiratzen zuen fideltasun hori, bere lankideak ez direlako behar bezala lotu emaniko arauai, edota:

“Herriaren jatorrizko testoek merezi duten errespetoa ulertzeko gusto fin eta hauta eduki behar da(lako), bai eta burujabetasun osoa ere literatur heziketan; eta bi gauza hauek, hain arraro eta eskasak diren adimen gorenetakoa jendeengan bakarrik aurkitzen dira” (*op. c. I, 12. orr.*).

(1) Ixtorio erraile zaharrek erraten dute: “Markatu duzu?...”. Ez dute behin ere erraten “eskribatu duzu?” (*op. ct. 8. orr.*).

Besteetan, fideltasun osoa asmo mailan ere egon denik zalantzan jarri izan da, Barbier edo Azkueren kasuan adibidez, eta zertxobait landuak, orraztuak, eta, agian, inausiak ere izan direlakoaren susmoa dugu.

Erabateko objetibotasuna ezinezkoa zaigula gizakioi uste dudanez, halere, ez dut, haatik, uste arbuiagarriak direnik biltzaile hauek transmititu dizkiguten ipuinak. Nahikoa dugu, amets utopikoetan ez erortzeko, errealitatearen mugak ezagutzea gure azterketak horretara egokitzeko.

Agian, teknika berrien bidez jasotako kontakizunek, aurretik jasotakoekin alderatuz, ikerbide berriak irekiko dizkigute.

3. EUSKAL IPUIN HARRIGARRIEN EREMUA ISTEN

Zazpi bildumen inguruan ihardun dugu itzul-inguruka. Berrehundik gora direla, esan dugu, bilduma horietan harrigarritzat jo daitezkeenak. Horien artean badago, ordea, antzekorik. Horrelakoak elkartuz, 60ren bat ipuin harrigarri desberdinen aurrean aurkitzen garela esan dezakegu, nahiz eta kopuru hori behin-behingoak izan.

Lehenengo begirada batean, gure ipuin harrigarrien eremua erabat urrituta gelditu zaigula pentsa dezake norbaitek. Eta, alde batetik, ez zaiola arrazoirik falta esan beharko genuke. Baina itxurazko urritze hori ez dela sakonean benetazko urritze bat pentsatzen dut. Zergatik?

Kasu gehienetan, ipuin-tipo baten bertsio desberdinak aurkitzen ditugu, beraien arteko desberdintasunak maila askotan sailka ditzakegularik:

aintzintasuna, geografiazko jatorria, euskalkia, edukia, kontaera, egitura, pertsonaiak, barne-iruzkinak, eta abar.

Alde horretatik, ikerlan aberatsa eskaintzen digutela ipuin-tipo baten bertsioek eta ikerlan hori zientzia-adar desberdineei irekia dagoela uste dut.

Bukatzeko, eta bertsio desberdinek eskaintzen diguten desberdintasunaren adibide gisa, aipa dezadan ipuin harrigarri ezagun bat: *Juan Artz*, eta bere hasierako egoera.

Juan Artz

Aarne-Thompson-en katalogoko 301 B ipuina duzue hau, eta oso hedapen zabalekoa, munduan zehar ezaguna baita, Europan, Mendebaldeko Asian, Indian, Txinan, Ipar Afrikan, Ameriketako europar kolonie-

tan eta Ipar Ameriketako indioen artean, P. Delarue-ren ustetan. Bestalde, berak dioenez, oso kontakizun zaharra izan arren, 18. mendearen hasiera arte ez da bertσιο idatzirik ezagutzen.

Halaber, garbi dago ipuin harrigarri bat dela, eta Propp-en ikuspuntutik Azkueren bertσιοaren azterketa ere askainia dugu.

Gure artean baditugu ipuin honen bospasei bertσιο desberdin gutxienez, Cerquand-en “L’ourson” edo “Le fils d’ours”, M. Ariztiaren “Hartz-Kumeren ichtorioa”, J. Barbier-en “Hachko eta haren bi lagunak”, Azkueren “Juan Artz” eta Barandiaranen “Joantxo Artza”.

Hona hemen bertσιο hauen kontatzaileen izan-abizena, jaioterria, eta jasoketaren urtea:

L’ourson: Mendibe (B.N.), Jean Etxamendi, 1885.

Hartz-Kumeren ichtorioa: Sara (L.), Josepe Amonarena, 1923.

Hachko eta haren bi lagunak: Senpere (L.), Jean Zuburu (Pepera), 1931 baino lehen.

Juan Artz: Murelaga (B.), M. Martina Maruri.

Joantxo Artza: Dima (B.), Claudio Pujana, 1935.

Baditugu hor, besterik gabe, azterketak bideratzeko zenbait datu. Baina etor gaituzen testura. Esan bezala, puntu bat besterik ez dut aipatuko: hasierako egoera, Propp-en egituran x hizkiz adierazten dena.

Hona hemen ipuin bakoitzeko hasiera hori:

1. Cerquand-en “L’ourson”:

“Bertzorduz Iratiko oihanian Mendibeko herritik eta Otxagabiarat zohalarik neskato bat, errekontratzen dizu hartz bat. Chuen chuen a egon balitzako hartza ahalgeturen zizun, bainan hura ikustearekin iziturik begiak lurerat aurtikitzen ditizu. Ikusirik haren estitasuna hartza arimatzen ziakozu eta bizkarrian ezartzen dizu eta eremaiten zilo batera. Hara direnean hartzak senditzen dizu uricha zuela eta ume bat egiten dizie. Emia izan baliz menturaz hartzak ez zizun sofrituren neskatoa, nola gertatu izan baitzen arra konxerbatu zizun”.

2. Ariztiaren “Hartz-Kumeren ichtorioa”:

“Asko bezala, baziren senar emazte batzuek. Gan ziren egur ketarat. Gizona igan zen haritz baten gainerat. Etorri zitzaion hartz bat. Andria ereman zion hartzak; sartu zuen leze batian. Eman zuen atekatzat ehun kintaleko harri bat. Emazte gaicho hura haur egin beharra gertatu zen. Sortu zen seme bat”.

3. Barbier-en “Hachko eta haren bi lagunak”:

“Hor, Euskal-Herri Nabarroako herri batean bizi zen familia bat arras beharra.

Egun batez, etxean egurra eskasturik, aita, bere alaba lagun harturik, gan zen, zama bana behar zutela oihanetik ekarri.

Oihanera heldu direlarik, badoazi biak bi alde, elgar hola aditurik: bere zama lehenik eginen zuenak, bertzearen begira behar zuela egon, hitz hartu toki batean.

Oihan izigarriak ziren orduko oihanak!

Neska gazteak bere zama egintxe dueneko, hor, oihanetik ateraturik, heldu zaio "Basa-Jauna", neska hartu'ta eremaiten baitu berekin, lurpean egina zuen egoitzarat. Nork erran haur gaichoaren izialdura eta burhasoen bihotzmina, beren alaba galdurik?...

Denboraren buruan, Basa-Jaunaren ziloan sortu zen beraz 'Hachko'."

4. Azkueren "Juan Artz":

"Mendian, amak bularrrik ezeukalako, artz batek ezi eieban Juan".

5. Barandiaranen "Joantxo Artza":

"Munduan beste asko lez, kueba baten, artzak eruan da eukan neskatxi batek seme bat izan eban. Artz orrek arri andi bategaz zerraturta kueba hortan eukiten zituen".

Testu labur hauetan gertaera berdina kontatzen zaigula esan dezakegu, baina ardatz berdinarean inguruan zenbat eta nolako desberdintasunak bost testo hauen artean! Hona batzu:

Heroearen ama: neskato/emazte/alaba/bularrrik gabeko ama/neskatxi.

Bahitzailea: hartza/hartza/Basa-jauna/Ø/hartza.

Sexuzko harremana: esplizittoa/inplizittoa/inplizittoa/Ø/inplizittoa.

Barne iruzkinak: bai (arra-emea)/ez/bai (oihan-min-izialdura)/ez/ez.

Beste datu adierazgarri bat: Cerquand-ek dakartzan euskaraz eta frantsesezko testuak, puntu honetan, arras desberdinak dira, frantsesezko itzulpenean zentsura nabarmena delarik.

Bukatzer a noa. Herri-narratibaren eremuaren zabaltasun eta aberastasuna aitortuz eman diogu hasiera ponentzia honi. Bada nahikoa ere ipuinena. Beraien arakatzek ekar diezaguke gure kulturaren ezagutza sakonagoa. Baita, beraz, gure nortasunaren sendotze emankorra.